

Karabelgo zubia erori da

■ Goizaldeko 06:00etan gertatu da ezbeharra ■ Zortez, ez da zauriturik izan ■ Diputazio teknika-rienen esanetan "azken egunetako haize kolpeak" dute errua.



Karabelgo zubia, bi puska eginda. Eskerrak inor pasaeran ez zen!

"GOIZEKO seiak aldian krixton burruna entzun det" esan digu Kontxexi Hernandorenak (Oblatsetan bizi da); "ilun zegoen artian, baina, balkoira atera eta zubi pusketa bat falta zala konturatu naiz". Muni- zipaletara deitu eta derrepente gelditu dute trafikoa; ordurako kotxe mordia zegoen geldirik, txikizioaz konturatuta.

ZUBI ZAHARTUA
Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariek zubi zahartuta zegoela onartu dute: "1949an ireki zen eta ordurako ez da gehiegi konpondu" esan digute. Zimenduak ondo ditu, baina, itxuraz, gainekaldean "dardara" haundia nabaritzen zen azken aldian kamioiak eta pasatzean.

TRAFIKOA DESBIDERATU
Udalzaingoa trafikoa Barrantza eta Etxeberri aldera desbideratu du, oraingoz. Orain, zubi berria egiten 3-4 hilabete beharko omen dituzte. Bitartean irteeraren bat bilatu beharko da, ez baita nolanhiko kotxe pila pasatzen puntu horretatik; dagoeneko hasi dira ataskoak sortzen.

LATXUNBE BERRI

Umeentzako tailerrak bihar eta etzi

OSTIRAL eta larunbatean jolasak izango dira Latxunbe Berriko *Iturritxo* auzo elkar- teko lokalean, goizeko 10:00etatik 13:00etara. Auzo elkartea da antolatzailea eta Dobera Euskara Elkarteko *Kilkerra* taldekoak ariko dira *fiesta* jartzen. Jolaserako gogoz dauden herriko gazte- txoek badakite nora jo. □

UDALA

Mendeko azken plenoa

GAI orden luzea du urteko azken Plenoak. Arratsaldeko zazpitan hasi eta gai askori buruzko erabakiak etorri litezke: aurrekontuko kredituen aldaketari buruzkoak, Euskara batzordeari buruzkoak, hirigintzako zenbait puntu ere badira, Karabelgo ur zikinei buruzkoa ere bai...

Azkenik, udal arautegi organikoa aldatzeko proposamena dago. □

SANDIUSTERRI

Puntu Txapelketa

SANDIUSTERRIN Eguberri- rietarako ekitaldi bereziak antolatu dituzte: gaur 19:30 etan, Puntu Txapelketa izango dute. Santo Tomaseta hasita, txistor jana, Igel Txapelketa, Gabon kantak abestu... ekitaldi asko izan dute zaharren egoitzan.

Larunbatean, *Gazteak* lau- koteak bere emanaldia eskai- niko du eta Urte Zaharretan Bingo berezia egingo dute. □

BERTSO LATA

'Asto baten gainean' Iraulio Pantalone

■ Hernaniko bertsolariak 'kale antzerkia' egingo dute kaxkoan barrena ■ 18:30etan hasiko da.

BERTSO Lata kalez kale ibi- liko da gaur. Iraulio eta Iraulio Pantalone asto baten gai- nean irtengo dira herrira; ber- tsotan esplikatu dituzte ber- tako saltsak. Noski, pasean aurkitzen dituen herritar guz- tien laguntzarekin.

SEI EKITALDI

Larunbatean desafioa eta atzo Bertso *txata* izan ziren. Bihar, Amurizaren ekitaldia izango da; larunbatean bertso jaialdia eta igandean erronda. Antola- tzailea Bertso eskola da; laguntzailea Udala. □

'SENIDEAK' ELKARTEA

Bihar enkartelada eta igandean kontzentrazioa

■ Ostiralean enkartelada; Gudarien Plazan hasiera, 20:00etan ■ Igandean, euskal presoak Euskalerrir- ratzearen alde kontzentrazioa; Plazan, 13:00ean.

FUTBOLA: REALA HANKAZ GORA

Batzarra aurreratzeko firma biltzen Hernanin

■ Atzo jarri zuten eta gaur da azken eguna ■ Plaza Berrin -ateri bada-; bestela, udaletxeko arkupean.



Bi neska atzo firma biltzeko mahaian, udaletxepean.

IGNACIO Gallón Poliklini- kako buruak hasi du salta guz- tia. Oraindik Realeko presi- dentea denak, Urangak, mar- txoaren 23an Batzarra konbo- katu eta alde egingo zuela esan zuen. Gallo akzionistari, or-

dea, berandutxo iruditu eta au- rreratzeko bidea hasi du: akzionisten %5 bildu batzarra aurreratzeko eskatzeko. Horre- tarako firma biltzen Gipuzkoa osoan. Hernanin gaur 11:00- etatik 20:00etara. □



Telemar
ITXASTELE S.L.

Telyco denda
Elkano 13, HERNANI

☎ 943 33 26 00

'Telefonica'ko banatzaile eskusiboa, Movistar, zentralitak, 'Centrex', Telefono altak, Telefonía mugikorra, Faxak, "Via Digital",...

Eguberritako eskaintza:

'Telefonica Famitel' 14.900 Pta



GALARRETA XXI-ALAI
FRONTOIA

Galarreta gaina z/g - HERNANI

Gaur arratsaldeko 16:00etatik aurrera erremonte jaialdia:

- ⇒ 1. partidua ZALAKAIN - ETXEBERRIA II / ZEBERIO III - URKO
- ⇒ 2. partidua Txapelketa: ELIZALDE-LIZASO / URRETABIZKAIA I - AIZPURU
- ⇒ 3. partidua EZKURRA- ETXEBERRIA III / ALTUNA II - IRIARTE
- ⇒ 4. partidua ZEBERIO I - URRETABIZKAIA II / SARASUA- MENDIZABAL

“Olentzero joan zaigu...”

■ Ehundaka lagun atera ziren kalera eta baserrietara kantari ■ Olentzeroren karrozak karemalu, gaztain erre, intxaur eta gabon giroz bete zituen kaleak.



Olentzero umei gaztain erreak banatzen, beste eskuan pipa eta makila dituela.

HASI Ereñotzutik eta Santa Barbarainoko tarte osoan, Olentzerok herria kantuan jarri zuen. Batzuek kalez-kale herribarruan, beste batzuek buelta zabalagoa eginez (baserri, sagardotegi...) eta izan ziren Olentzero kartzela zutenak ere.

IKASTOLA GUZTIAK
Eskola guzitek atera zuten beren koadrila. *Langileko* txikiak bi egun lehenago atera ziren gainera.

OLENTZERO KARROZAN
Doberak antolatuta, Olentzeroren karrozak herri barruan

buelta osoa eman zuen, gaztain erre, intxaur eta goxokiak banatuz. Kalearen alde banatan, ume eta helduak, Olentzero sagardozalearen opari zain. Atzetik, berriz, Santi *Prailia Joxemartin* astoa opariz karga-karga eginda. Eki-taldia plazan bukatu zen. □

Txillidak ‘Hernani’ eskultura jarriko du ‘Karreroren’

■ Gaztetan Hernanin ikasi izanagatik eskaini nahi dio momentua herriari. ■ Bihar goizean hasiko dira jartzen eta urte berri egunean inauguratuko dute.



Txillidaren ‘Hernani’ eskultura izango dena Zabalagan, oraindik.

EDUARDO Txillidak (1936) Madrilan ikasi zuen arkitektura, baina, Hernanin egin zituen lehen arte lan garrantzitsuak. 1951ean, Pili emaztea eta biak, gure herrira etorri ziren lehen haurra izatekoa zutela. Karreron (orain frontoia eta teniseko pista dagoen horretan) forja zegoen orduan. Forja horretan hasi zen lanean; han jarri zuen bere *tailerra* eta Jose Kruz Iturbide izan zuen laguntzaile.

‘ILARIK’ - ‘HERNANI’
Ilarik izena du Txillidak Karreroko forjan egin zuen lehen burnizko eskulturak. Orain, eskultura bere jaiotxera ekarriko du eta *Hernani* izena jarri. Txillidaren prentsa bulegoak “Eduardok gogoan du non eman zituen lehen pausoak” esan dio *Kronikari*.

Hernani izango da ‘artista unibertsalak’ herriko parke batean jartzen duen lehen artelana. □

■ HITZ BITAN



Umeak eta gurasoak ipuinak entzuten, atzo liburutegian.

✓ IPUIN KONTAKETA

Umeak eta gurasoak, liburutegiko ipuin kontaketan. 3-8 urte bitarteko umeek Itziar Zubizarretaren ipuinekin gozatu zuten atzo. Hamaiketan gaztetxoentzat izan zen, eta eta orduerdi beranduago besteentzat. Umeentzako areto txikia bete egin zen. Liburutegiak hilean behin antolatzen du ipuin saioa, baina, Gabonak direla-eta, datorren asteazkenean beste emanaldi bat izango da: leku eta ordu berean.

✓ JUBILATU ETXEA

Hitzaldia gaur, osteguna: ‘loa galtzea’. Arantxa Martin psikologoak emango du hitzaldia arratsaldeko seietatik aurrera.

✓ ERREMONTEA GALARRETAN

Bi bitako txapelketako partidua izango da gaur. Elizalde eta Lizaso, Urretabizkaia I eta Aizpururen kontra neurtuko dira jaialdiko bigarren partiduan; 16:00etan.

✓ ‘BATASUNA’ PROZESUKO BILERA

Gaur Biterin, 19:30etan. Aurreko larunbatean zortzi hasitako eztabaidak jarraituko du gaur arratsaldean: “Eraiki nahi dugun herritar batasuna” eztabaida. Aurreko bileran eztabaidan dauden ponentziak aurkeztu ziren eta aurrerantzean Hernaniko ordezkariak zeinen alde egingo duen hitz egi erabakitzea falta da.

✓ KANTUZ ABESBATZA

Kontzertua emango du bihar Milagrosan, 19:30etan. Kantuz Abesbatzak Gabonetarako antolatu duen egitarauaren barruan, ostiral ilunabarrean kantaldia du. □

IRRATIAK

(E.M. 99.2): 11:40etan: Iñaki Zuzak esanda, “Neguan mendian ibiltzeko aholkuak”. Aizkorritik buelta. 12:00etan: “Ipar Euskal Herrian euskarari laguntzeko hitzarmen betegabeak”. 22:00etan: *Magazin musikala*: zozketa mundiala.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

► Taxiak: 943 550093
► Udaltzaingoa: 943 333288
► DYA: 943 464622
► Autobusak: 943 556662
► Anbulatorioa: 943 557750

☎ FARMAZIAK

► Egunez: Sagastiberri Urbieta, 7
☎ 943 552941
► Gaez: Gorospe Andoain. Rikardo Arregi, 12
☎ 943 592415

brintza

BRINTZA, S.L.

Juan de Urbieta 15
Tel. 943 33 12 67
Faxa.: 943 33 08 92
20.120 HERNANI



LAN AHOLKULARITZA
AHOLKULARITZA FISKALA
ASEGURUAK, INBERTSIOAK

ETXE ONENAK, S.A.

**GARAJE ITXIAK
‘OBLATOS’ETAN
SALGAI**

Informatu eta saldu:
☎ 943 33.22.37



Laguntzaile:

HERNANIKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentuak